



Ayuntamiento de Barañain
Barañaingo udala



Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera

Euskara Arloak garatzen duen soziolinguistika alorreko planaren xedea lehentasunen arabera udalerrian jarraitu beharreko estrategiak eta ekintzak zehaztean datza: hala nahi duenarentzat euskaraz bizitzeko aukera bermatzeko; Barañain udalerrian norbanakoaren, gizartearen eta erakundeen esparruan euskararen erabilera normalizatzeko; eta baita euskara bezalako hizkuntza minoritarioa eta eremu urrikoa berreskuratzeko ere.

Erabilitako metodologiak hurrengo faktoreak barne hartzen ditu: talde sozialei dagozkienak (haurtzaroa, gaztaroa, helduaroa eta zahartzaroa); jarduketa eremuari dagozkionak (kultura, hezkuntza, kirola, senitartea, bizi-tza soziala, merkataritza, administrazioa...) eta hizkuntzari dagozkionak (motibazioa, ezagutza eta erabilera).

Arloak honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Hizkuntza aholkularitza.
- Barañaingo *Bai Euskarari Akordioaren* barruan itzulpen zerbitzua.
- Hiritarrentzako arreta, administrazio prozedurak edo soziolinguistikarekin lotutako beste gaiak euskaraz izapidetu ahal izateko.
- Euskara sustatzeko hedapen kanpainak, lengoia berreskuratzeko hizkuntza faktoreak suspertzeko: motibazioa, ezagutza eta erabilera, kasuan kasu.
- Euskara eta bere inguru soziolinguistikoarekiko sentsibilizatzeko hedapen kanpainak, euskara gaitasun gabeko edo gutxiko sektoreei zuzenduta.
- Esparru soziolinguistiko eta kulturaletik euskarazko ekoizpenari zuzenduriko hedapen programak.
- Udalerrian erroldatutako helduak euskalduntzeko eta alfabetizatzeko diru-laguntzen kudeaketa.
- Udalerriko leku izenei eta kale, plaza eta lekuetako izen elebidunei buruzko informazioa, eta grafia zuzena.
- Izen-abizena Erregistro Zibilean euskarazko jatorrizko grafiarekin erregistratzeko informazioa.